2-8 URTE

# IKUSI ETA IKASI

• BILBOKO HAUR KULTUR ZIRKUITUA •

IKUSKIZUNAK, HITZALDIAK ETA TAILERRAK

2017ko
URTARRILA • OTSAILA • MARTXOA • APIRILA

Bilbao

| | EGUNA | LEKUA | SAIOA | ORDUA |
|---|---|---|---|---|
| URTARRILA | 16 | Basurtuko udaltegian | Apika Taldea | 18:00 |
| | 17 | Begoñako udaltegian | Imanol Ituiño | 18:00 |
| | 18 | Errekaldeko udaltegian | Bat, Bi, Hiru… Festa! | 18:00 |
| | 19 | Tiboli eskolan | Zirkun zirko | 18:00 |
| | 20 | Abandoko udaltegian | Zurrunka Teatroa | 18:00 |
| | 21 | Deustuko Bidarte udaltegian | Kidam Magoa | 11:00 |
| | 23 | Basurtuko udaltegian | Ayuda en tareas escolares | 18:00 |
| | 24 | Begoñako udaltegian | Sukaldaritza tailerra | 18:00 |
| | 25 | Errekaldeko udaltegian | Sukaldaritza tailerra | 18:00 |
| | 26 | Castañosko udaltegian | Sukaldaritza tailerra | 18:00 |
| | 27 | Abandoko udaltegian | Sukaldaritza tailerra | 18:00 |
| | 28 | Deustuko Bidarte udaltegian | Sukaldaritza tailerra | 11:00 |
| | 30 | Basurtuko udaltegian | Eriz Magoa | 18:00 |
| | 31 | Begoñako udaltegian | Ameztu Taldea | 18:00 |
| OTSAILA | 01 | Errekaldeko udaltegian | Txoborro Magoa | 18:00 |
| | 02 | Tiboli eskolan | Onintze Goitiz | 18:00 |
| | 03 | Abandoko udaltegian | Ayuda en tareas escolares | 18:00 |
| | 04 | Deustuko Bidarte udaltegian | Monda eta Lironda | 11:00 |
| | 06 | Basurtuko udaltegian | Musikoterapia tailerra | 18:00 |
| | 07 | Begoñako udaltegian | Musikoterapia tailerra | 18:00 |
| | 08 | Errekaldeko udaltegian | Musikoterapia tailerra | 18:00 |
| | 09 | Castañosko udaltegian | Musikoterapia tailerra | 18:00 |
| | 10 | Abandoko udaltegian | Musikoterapia tailerra | 18:00 |
| | 11 | Deustuko Bidarte udaltegian | Musikoterapia tailerra | 11:00 |
| | 13 | Basurtuko udaltegian | Emozioen kudeaketa | 18:00 |
| | 14 | Begoñako udaltegian | Tor Magoa | 18:00 |
| | 14 | Begoñako udaltegian | Emozioen kudeaketa | 18:00 |
| | 15 | Errekaldeko udaltegian | Hodei Magoa | 18:00 |
| | 16 | Tiboli eskolan | Zirtaka Antzerkia | 18:00 |
| | 17 | Abandoko udaltegian | Sendabelar tailerra | 18:00 |
| | 18 | Deustuko Bidarte udaltegian | Behinola | 11:00 |
| | 20 | Basurtuko udaltegian | Mozorro tailerra | 18:00 |
| | 21 | Begoñako udaltegian | Mozorro tailerra | 18:00 |
| | 22 | Errekaldeko udaltegian | Mozorro tailerra | 18:00 |
| | 23 | Tiboli eskolan | Hodei Magoa eta Tiritatxo | 18:00 |
| | 24 | Karmen aretoan | Eidabe Antzerkia | 18:00 |
| | 25 | Deustuko Bidarte udaltegian | Mozorro tailerra | 11:00 |



| | EGUNA | LEKUA | SAIOA | ORDUA |
|---|---|---|---|---|
| | 27 | Abusuko liburutegian | Miren Larrea | 18:00 |
| | 28 | Begoñako udaltegian | Amaia Elizagoien | 18:00 |
| MARTXOA | 01 | Errekaldeko udaltegian | Sudurkeriak | 18:00 |
| | 02 | Zorrotzako udaltegian | Hor Konpon Marianton | 18:00 |
| | 03 | Karmen aretoan | Kiki eta Koko | 18:00 |
| | 04 | Deustuko Bidarte udaltegian | Eidabe | 11:00 |
| | 06 | Zamakola eskolan | Ayuda en tareas escolares | 18:00 |
| | 07 | Begoñako udaltegian | Barreterapia tailerra | 18:00 |
| | 08 | Errekaldeko udaltegian | Barreterapia tailerra | 18:00 |
| | 09 | Zorrotzako udaltegian | Barreterapia tailerra | 18:00 |
| | 10 | Karmen aretoan | Puski eta Txurruski | 18:00 |
| | 11 | Deustuko Bidarte udaltegian | Barreterapia tailerra | 11:00 |
| | 13 | Zamakola eskolan | Eraikuntza eta Sormen tailerra | 18:00 |
| | 14 | Begoñako udaltegian | Eraikuntza eta Sormen tailerra | 18:00 |
| | 15 | Errekaldeko udaltegian | Eraikuntza eta Sormen tailerra | 18:00 |
| | 16 | Bilborock aretoan | Irrien Lagunak | 18:00 |
| | 17 | Karmen aretoan | Elvi | 18:00 |
| | 18 | Deustuko Bidarte udaltegian | Eraikuntza eta Sormen tailerra | 11:00 |
| | 20 | Zamakola eskolan | Bapatean Zirko | 18:00 |
| | 21 | Begoñako udaltegian | Sendabelar tailerra | 18:00 |
| | 22 | Errekaldeko udaltegian | Ayuda en tareas escolares | 18:00 |
| | 23 | Bilborock aretoan | Ane Monna, Oskola, Karramarroi | 18:00 |
| | 24 | Karmen aretoan | Zirika Zirkus | 18:00 |
| | 28 | Santutxuko udaltegian | Sendabelar tailerra | 18:00 |
| | 29 | Errekaldeko udaltegian | Emozioen kudeaketa | 18:00 |
| | 30 | Bilborock aretoan | Akelar Taldea | 18:00 |
| APIRILA | 03 | Euskararen Etxean | Sendabelar tailerra | 18:00 |
| | 04 | Santutxuko udaltegian | Sukaldaritza tailerra | 18:00 |
| | 05 | Iruarteta ikastetxean | Odei Arregi | 18:00 |

TAILERRA
DANTZALDIA
HITZALDIA
MAGIA
IPUIN KONTAKETA
ANTZERKIA
ZIRKOA
SABEL HIZTUNA

**AURKIBIDEA** ÍNDICE

**Urtarrila** / Enero ............ 4 - 7
**Otsaila** / Febrero ............ 8 - 12
**Martxoa** / Marzo ............ 13 - 17
**Apirila** / Abril ............ 18
**Tailerrak** / Talleres ............ 19 - 22

## IKUSI ETA IKASI 2017

Hemen da berriro IKUSI ETA IKASI programa, neskato-mutikoek, bai eta gurasoek ere, irrikan itxaroten dituzten ikuskizun entretenigarriak.

Hamairugarren edizio honetan ere berrikuntzak dakarzkizuegu. Aurtengo ekitaldia urtarrilaren 16an hasiko da neguko hotzekin eta apirilaren 5ean amaituko da udaberriko eguzki epelarekin. Tarte luze horretan, beti bezala, antzerkia, ipuin kontalariak, magia eta tailer interesgarriak izango dituzue. Tailerrak direla eta, aurten sukaldaritza, mozorrogintza, eraikuntza, barreterapia eta musikoterapiaz gain, sendabelarren tailerra izango dugu berrikuntza gisa. Gainera, tailerretan izena emandako guztien artean, zozketa egingo dugu denok tailerretan parte hartzeko aukera bertsuak izan ditzazuen.

Aitek eta amek ere euren tartetxoa izango dute seme-alabei ikastetxeko lanekin zein emozioen kudeaketarekin laguntzeko jarraibideak eskaintzeko tailerrekin.

Bilboko txoko gehienetara heltzeko asmoari jarraituz, aurten hiru areto gehitu ditugu zirkuitura Iruarteta eskola, Abusuko liburutegia eta Euskaren Etxea.

Eta amaitzeko, parte hartzaile guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu Bilbon euskara normalizatzeko lan honetan laguntzen diguzuelako.

Ya está aquí de nuevo el programa IKUSI ETA IKASI, el programa de entretenimiento tan esperado por los pequeños y sus familias.

Este año cumplimos 13 ediciones y volvemos con más novedades. Esta edición comenzará el 16 de enero, con el frío invierno, y finalizará el 5 de abril, con la llegada de la primavera. Durante ese largo periodo, como en años anteriores, disfrutaremos con los teatros, cuenta cuentos, magia e interesantes talleres. En cuanto a los talleres, este año a parte de los habituales talleres de cocina, disfraces, construcción, risoterapia y musicoterapia, tendremos como novedad el taller de plantas medicinales. Además, a partir de este año a la hora de otorgar las plazas en los talleres, se realizará un sorteo entre todas las personas inscritas para que todos tengan las mismas posibilidades de participación.

Los aitas y amas también tendrán su espacio con los talleres que les ofrecerán pautas para ayudar a sus hijos e hijas con las tareas del colegio y en la gestión de sus emociones.

Siguiendo con nuestra intención de llegar a más barrios de Bilbao, este año hemos incluido tres espacios al circuito: el colegio Iruarteta, la Biblioteca de Abusu y Euskararen Etxea.

Y para finalizar, os queremos agradecer vuestra participación en esta labor de normalizar el uso del euskera en Bilbao.

**Koldo Narbaiza Olaskoaga**
Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia
Concejal del Área de Euskera y Educación







## APIKA TALDEA

### "Rol Jokoa"




**Urtarrilaren 16an**
*astelehena*
*18:00etan*

**BASURTUKO UDALTEGIAN**
*Zankoeta, 1*

Portaerak aldakorrak dira eta etxeko harremanetan oinarritutako ipuin kontaketa honi esker errealitate hau agerian geratuko da. Apika taldeak gizarte honek ematen dituen aukera guztiak denontzat direla ikustaraziko digu oso modu entretenigarrian.

Este cuento nos mostrará de una forma divertida que las oportunidades que ofrece la sociedad son para todos por igual. ¿Dispuestos a disfrutar con este juego de roles?

## IMANOL ITUIÑO

### "Magia parrastan"




**Urtarrilaren 17an**
*asteartea*
*18:00etan*

**BEGOÑAKO UDALTEGIAN**
*Circo Amateur Club Deportivo, 2*

Zer da hori, txori bat? hegazkin bat? Superman? Ez! Magia parrastan da! Baina... zer ote da magia parrastan? Erantzuna oso erraza da: ikuskizun honetan magia pila bat izango da ikusiko duzuena; horixe baita magia parrastan; magia etengabea! Emanaldi honetan kartek, bolatxoek, sokek, agerpenek eta desagerpenek izango dute protagonismoa. Zatoz ikuskizun parte-hartzaile, dinamiko eta magiko honetara; familia osoak gozatuko du eta!

Cartas, bolas, cuerdas, desapariciones y apariciones son las protagonistas de este espectáculo participativo y familiar.

## BAT, BI, HIRU ... FESTA!
### "Goazen dantzara"




**Urtarrilaren 18an**
*asteazkena*
*18:00etan*

**ERREKALDEKO UDALTEGIAN**
*Altube zeharkalea, 6*

Protagonistak herri txiki batetik etorritako bi pailazo euskaldun dira. Dantza eta festa betidanik asko gustatu izan zaizkie, baina biek bakarrik dantza egitea ez dute gustuko. Horregatik haur, gazte eta helduak dantzatzera eta abestera animatzen dituzte beraiekin batera.

Dos payasas amantes del baile y la fiesta nos harán disfrutar en familia con divertidas coreografías participativas y canciones populares. ¿Preparados para bailar?

## ZURRUNKA TEATROA
### "Ipuin kontalari"




**Urtarrilaren 20an**
*ostirala*
*18:00etan*

**ABANDOKO UDALTEGIAN**
*Barrainkua, 5*

Etxeko baratzean erein eta hazitako ipuinak, liburutegiko apaletan topatutakoak, amonaren oroimenean ahazten ez direnak, negu hotzeko egunak berotzen dituzten ipuinak, udaberriko ipuin koloretsuak, ilargiak islatzen dituenak, amesturiko ipuinak eta urrutiko herrietatik haizeak ekartzen dizkigunak.

Ipuin bat bidaia luze bat da eta haurrak gurekin batera emozio, jolas, sormen eta abenturen mundutik ibilalditxo bat egitera gonbidatu nahi ditugu. Era berean, kontakizun honen helburua irakurtzeko zaletasuna sustatzea da.

Los cuentos son una gran herramienta para adentrarse en una gran aventura por el mundo de las emociones, los juegos y la creatividad. ¡Comienza el viaje!

## ZIRKUN ZIRKO
### "Bidaibizitzen"




**Urtarrilaren 19an**
*osteguna*
*18:00etan*

**TIBOLIN, Epalza Alargunaren ikastetxean**
*Tiboli, 5*

Zirkun eta bere lagun txikia den Tinaren bidaia hastera doa! Oraingoan txirringa magiko eta berezi batean egitea erabaki dute. Bidaiatzeko prest?

Bidean abentura mordoak bizi eta pertsonaia dibertigarri ugari ezagutuko dituzte. Lagun hauei esker bizitzari buruzko gauza inportante ugari ikasiko dute.

"Esnatzen garenean ametsak igual ez dira desagertzen, agian norbaitek gordetzen dizkigu".

Zirkun y Tina nos invitan a vivir una gran aventura en una bicicleta mágica, a conocer aspectos importantes de la vida de la mano de entretenidos personajes.

## ASIER KIDAM MAGOA
### "Aroa eta mirariak"




**Urtarrilaren 21ean**
*larunbata*
*11:00etan*

**DEUSTUKO BIDARTE UDALTEGIAN**
*Agirre Lehendakaria, 42*

Asier Kidamek "Aroa eta mirariak" izeneko ikuskizun liluragarria aurkeztuko du Deustun. Espektakulu honetan, magiaren joko klasiko erabat berrituak eta gaur arte sekula ikusi ez ditugunak gozatuko ditugu aldi berean. Parte-hartze aktiboa, harridura eta umore fina ziurtaturik daude.

Magiarekin ilusioa berpizteko prest? Gonbidatuta zaudete; zuen zain izango gara!

Juegos de magia clásico se mezclan con trucos nunca antes vistos. El humor, el asombro y la participación son los ingredientes esenciales del mago Kidam.

## ERIZ MAGOA




**BASURTUKO UDALTEGIAN**
*Zankoeta, 1*

Ongi etorri mundu magiko batera, non ilusio eta fantasia apur batekin, dena posiblea den.

Magiak eta umoreak bat egiten duten ikuskizun honetan, umeek fantasia eta errealitatearen arteko fusioak sortutako emozioekin gozatzeko aukera izango dute.

La ilusión, la magia y el humor se unen en el nuevo espectáculo infantil del Mago Eriz. Bienvenidos a un mundo mágico en el que todo es posible.

**Urtarrilaren 30ean**
*astelehena*
18:00etan

## AMEZTU TALDEA

## “Ganbaran”




**BEGOÑAKO UDALTEGIAN**
*Circo Amateur Club Deportivo, 2*

Skratx dibertigarria eta familiarra den umeentzako zein helduentzako antzezpena da.

Skratxek denboraren poderioz superheroitik antiheroira nola pasatu egin den kontatzen du. Baina orain ipurdia altxatzeko eta 180 graduko aldaketa emateko momentua da; esku artean arazo bat azaldu zaio eta edo konpontzen du edo beti-betirako kapa zintzilikatu beharko du. Lortuko al du Fantastik Luzi Wert Igo doktorearen eskuetatik libratzea?

Obra de teatro divertida y familiar que nos muestra como el superhéroe Skratx se convierte en un antihéroe. ¿Logrará darle la vuelta a la situación?

**Urtarrilaren 31n**
*asteartea*
18:00etan





## TXOBORRO MAGOA




**ERREKALDEKO UDALTEGIAN**
*Altube zeharkalea, 6*

Txoborrok magiaren eta umorearen arteko sinbiosi hobezina eskaintzen digu, artearen askotariko arloak tartekatzen dituena, arlo horiek denek nola edo hala magiarekin zerikusia dutelarik. Besteak beste, txinatar itzalak, malabarismoa eta globoflexia. Hori guztia, jakina, magia tradizionalaren diziplina guztiekin batera doala: kartomagia, hurbileko magia, aretokoa, manipulazioa, etab.

El Mago Txoborro nos dará a conocer el mundo de la magia mediante sombras chinescas, malabarismo y globoflexia.

**Otsailaren 1ean**
*asteazkena*
18:00etan

## ONINTZE GOITIZ

## “Enaitz pirata ipuinen munduan”




**TIBOLIN, Epalza Alargunaren ikastetxean**
*Tiboli, 5*

Enaitzek buruan zapi bat lotu, itsasontziko leman jarri eta munduari bira ematen hasi zen. Hilabeteak dira herri askotatik oinez, zaldiz eta itsasontziz igaro dela. Hego Ameriketan, Afrikan, Asian... lagun asko egin ditu, baita hamarnaka hizkuntza entzun eta hango ipuinak ikasi ere. Laster iritsiko da Bizkaiko golkora eta bere liburuan jasotako amets magikoak hemengo umeekin elkar banatuko ditu.

La pirata Enaitz ha viajado por todo el mundo y pronto llegará al Golfo de Bizkaia para contarnos los sueños mágicos que ha recogido en su libro.

**Otsailaren 2an**
*osteguna*
18:00etan

## MONDA ETA LIRONDA
### "Detektibeak"




**DEUSTUKO BIDARTE UDALTEGIAN**
*Agirre Lehendakaria, 42*

Antzezlan honetan Monda eta Lironda pailazoak detektibe bihurtuko dira.

Desagerpen batzuk argitzeko asmoz dena prestatu eta ondoren datu garrantzitsu bat falta zaiela konturatu dira: ez dakite zer demontre bilatu behar duten!! Nagusiak, berriz, argi du: lapurra aurkitu behar dute. Horretarako pista-bilaketa, kamuflajea eta tramankulu arraroak erabiliko dituzte. Baina azkenean lortuko al dute benetako lapurra harrapatzea? Zatoz eta zuk zeuk ikusi!

Monda y Lironda se han convertido en detectives. Su misión es dar caza a un ladrón. ¿Lo conseguirán? Ven y descúbrelo.

**Otsailaren 4an**
*larunbata*
*11:00etan*

## HODEI MAGOA
### "Ilusioaren indarra"




**ERREKALDEKO UDALTEGIAN**
*Altube zeharkalea, 6*

Iritsi da "Ilusioaren indarra", Hodei Magoaren ikuskizun berria. Gure bizitzan ilusioak duen garrantzia ikustarazteko saioa da. Ikuskizun tankera duen proba hain zuzen ere.

Ikuskizun berritzaile honetan umorea eta ilusioa dira nagusi. Agerpen eta desagerpenak, lebitazioa eta ezinezko asmaketak posibleak dira. Ba al zatoz?

La ilusión es una parte esencial de nuestras vidas y este espectáculo es prueba de ello. Apariciones y desapariciones, levitaciones, acertijos imposibles...

**Otsailaren 15ean**
*asteazkena*
*18:00etan*

## TOR MAGOA
### "Hator magiara"




**BEGOÑAKO UDALTEGIAN**
*Circo Amateur Club Deportivo, 2*

Magia emanaldi parte-hartzaile eta dibertigarria dakarkigu Tor magoak oraingoan ere, umore eta sorpresaz beterik hasieratik amaieraraino.

El mago Tor nos vuelve a traer un espectáculo de magia lleno de diversión y sorpresas.

**Otsailaren 14an**
*asteartea*
*18:00etan*

## ZIRTAKA ANTZERKI TALDEA
### "Zu eta ni sudurluze bi"




**TIBOLIN, Epalza Alargunaren ikastetxean**
*Tiboli, 5*

Robustiana eta Zeledonio suntsitutako etxe batean bizi dira, dirurik gabe... eta gainera haien amama gaixorik dagoenez botikak behar ditu. Egoera honi buelta emateko, dirua lortzeko, zenbait burutazio praktikan jarriko dituzte hainbat egoera barregarri sortuz; baina denak alferrik izango dira.

Baina zer egingo dute dirua lortzeko? Etorri gurekin haien abenturez gozatzera eta amaierako sorpresa ikustera.

Robustiana y Zeledonio viven en una casa austera, sin dinero y tendrán que ingeniárselas para pagar las medicinas que su abuela necesita. ¿Qué se les ocurrirá?

**Otsailaren 16an**
*osteguna*
*18:00etan*

## BEHINOLA
### "Amonaren sutondoko ipuinak"



**DEUSTUKO BIDARTE UDALTEGIAN**
*Agirre Lehendakaria, 42*

Ipuin kontaketa interaktibo honetan, txotxongiloek, haurrek eta kontalariek batera parte hartuko dute. Amonak sutondoan kontatutako ipuinak ezagutuko ditugu eta munduko hainbat bazterretara bidaiatuko dugu istorio zoragarriak ezagutzeko.

En este cuento interactivo participa todo el mundo. La interpretación, los títeres y la música son los protagonistas de este espectáculo dinámico y educativo.

**Otsailaren 18an**
*larunbata*
*11:00etan*

## MIREN LARREA
### "Nire bidea"




**ABUSUKO LIBURUTEGIAN**
*Ibaialde kalea, 3*

Mikelen urtebetetze eguna heldu da!

Aititek baserrian txokolatada ederra prestatu du. Kattalinekin ezkutaketan jolasean, milaka abentura biziko ditu Mikelek.

Baina... Badirudi ongi ezkutatu dela Kattalin txikia; topatuko ote du Mikelek?

Es el cumpleaños de Mikel y su aitite le ha preparado una gran chocolatada, mientras juega con Kattalin al escondite viviendo grandes aventuras. ¿Logrará encontrarla?

**Otsailaren 27an**
*astelehena*
*18:00etan*

## HODEI MAGOA ETA TIRITATXO




**TIBOLIN, Epalza Alargunaren ikastetxean**
*Tiboli, 5*

Magiaren mundura hurbiltzeko aukera izango dugu HODEI MAGOAren eta TIRITATXOren bidez. Haur eta heldu aho zabalik utziko dituen ilusioz beteriko saioa eskainiko digute. Zein izango da egingo diguten oparia? Dudarik ez dago: IRRIA eta jakinmina.

La magia y el ilusionismo son los protagonistas del gran espectáculo del Mago Hodei y Tiritatxo, quienes nos regalarán una gran sonrisa.

**Otsailaren 23an**
*asteazkena*
*18:00etan*

## AMAIA ELIZAGOIEN
### "Amelie ipuinen jostuna"




**BEGOÑAKO UDALTEGIAN**
*Circo Amateur Club Deportivo, 2*

Ameli ipuin kontalaria, herriz herri eta auzoz auzo, ipuinak ametsekin josten aritzen den neska gaztea da.

Egungo gizartearen baloreetan oinarrituz eta ipuinak bidelagun dituelarik, entzulea fantasiazko mundu batera murgildu nahi du, izarren artean kulunkatuz. Mundu magiko batean murgiltzeko prest?

La joven Amelie nos adentrará en un mundo de fantasía, hilando increíbles cuentos y sueños.

**Otsailaren 28an**
*asteartea*
*18:00etan*

## EIDABE ANTZERKIA "Futbolariak eta printzesak"




**BILBOKO KARMEN ARETOAN**
*Indautxu plaza, z.g*
**Otsailaren 24an** *ostirala, 18:00etan*

Odei eta Lur klasetik ihes egin duten neska eta mutila dira. Besteengandik ezberdin sentitzen dira, ez dituztelako neska ala mutilei egozten zaizkion arauak bete nahi.

Lurrek, Lur izan nahi du eta Odeik, Odei, inork nola jokatu behar duten esan gabe; mutila izateagatik futbolean jokatu behar duen ala neska izateagatik printzesak atsegin behar dituen.

Lurrek eta Odeik nahi dutena adierazi, bizi eta sentitzeko libre izan nahi dute; inposaketa eta etiketa sexistarik gabe mundu aske batean.

Odei y Lur huyen de clase por sentirse diferentes al resto. No les gustan las etiquetas que definen qué les debe gustar, a qué deben jugar... quieren ser libres

## SUDURKERIAK
### "Mugi-Mugi"




**Martxoaren 1ean**
*asteazkena*
*18:00etan*

**ERREKALDEKO UDALTEGIAN**
*Altube zeharkalea, 6*

Salto, mugi, dantza, buelta... gaurko, atzoko eta biharko kantuekin eragin gogoz gorputzari! Txikientzako eta familientzako disko-festa ikusgarri honetan parte hartzeko prest?

Disco-fiesta infantil amenizada con canciones de todas las épocas para saltar, bailar y mover el esqueleto.

## HOR KONPON MARIANTON




**Martxoaren 2an**
*osteguna*
*18:00etan*

**ZORROTZAKO UDALTEGIAN**
*Rojo Hermogenes, 1*

Makinak iritsi dira gure artera... eta hemen geratzeko gainera. Telebistak, sare sozialak, "makinita" arruntak, denon eskuetan daude, baita gure seme-alaba txikien eskuetan ere. Makinekin gozatzen ikasi behar dugu, baina menpean erori gabe.

Jon eta Lide lagun minak dira, baina azken boladan Anderrek makinekin baino ez du jolasten eta Lide triste dabil. Bere lagunik onenari nola lagundu ondo pentsatu ondoren, plan bat jarriko du martxan eta horretarako publikoaren laguntza ezinbestekoa izango da. Laguntzeko prest?

Lide está triste porque su amigo Ander se pasa el día pegado a su videoconsola. Tiene un plan de rescate en marcha pero necesita vuestra ayuda.



## KIKI ETA KOKO
### "Natura naiz"




**Martxoaren 3an**
*ostirala*
*18:00etan*

**BILBOKO KARMEN ARETOAN**
*Indautxu plaza, z.g*

Kiki eta Koko pailazoen istorio honetan, basoko iratxoak oso izuturik daude, aztoratuta eta haserre, ikusirik gure planetako gauzarik baliotsuena, naturaren bizia, suntsitzen eta birrintzen ari dela. Eta nork edo zerk du horren errua? Gizakiaren arduragabekeria itzelak.

Istorio honetan bada oso gaixo, hilzorian dagoen zuhaitz bat. Kiki, koko eta haurrek zuhaitz honen andere zaindaria poz-pozik daukate ahal duten guztia egingo dutelako zuhaitzari laguntzeko.

Los duendes del bosque están muy asustados al ver que los humanos están destrozando la vida de la naturaleza. ¿Conseguirán Kiki y Koko dar vida al árbol enfermo?

## EIDABE ANTZERKIA
### "Baserrian amets"




**Martxoaren 4an**
*larunbata*
*11:00etan*

**DEUSTUKO BIDARTE UDALTEGIAN**
*Agirre Lehendakaria, 42*

Amets patata eta arrautzak dendatik datozela uste duen neska gaztea da. Amamarekin baserrian asteburua pasatu eta gero, ordea, elikagaiak nondik datozen ikasiko du.

Ametsek gure lurra, baratzea eta abereak ezagutuko ditu baserrian. Garaian garaiko eta bertakoa jan egin behar dela ere ikasiko du.

Antzezlan labur honekin haurrei gure elikagaiak eta haien jatorria erakutsi nahi zaie. Samurtasunez, gainera, ume baten eta amamaren istorio honetan musika eta antzerki jolasa nahastuko dira.

Obra de teatro infantil educativa que muestra la procedencia de los alimentos, mientras enseña la importancia de comer productos autóctonos y de temporada.

## PUSKI ETA TXURRUSKI
### "Klownmunikatu fest"



Martxoaren 10ean
*ostirala*
18:00etan

**BILBOKO KARMEN ARETOAN**
*Indautxu plaza, z.g*

DJ Txorizo disko jartzaileak bere emanaldirako bidean arazoak izango ditu eta ezingo da garaiz iritsi. Hala ere, Puski eta Txurruski saltseroek jaia salbatuko dute pailazoek berez duten inprobisazio senari esker. Giro mundialean dantzatzeko prest?

Las payasas Puski y Txurruski salvarán la tardía actuación de DJ Txorizo gracias a sus grandes dotes de improvisación y humor.

## ELVI
### "Nor da panpina?"




Martxoaren 17an
*ostirala*
18:00etan

**BILBOKO KARMEN ARETOAN**
*Indautxu plaza, z.g*

Ongi etorri Elvi sabeliztunak gidatutako ikuskizun dibertigarrira. Panpinekin batera umorea, magia eta abestiak eskainiko ditu ordubetez. Elviren lagunekin hamaika abentura bizitzeko prest?

Mattin ume bihurri eta sasijakintsua, haurren laguntza jasoko duen Sissy ahate euskaldun berria eta Lester, Jazz abeslaria den gorila, izango dira ikuskizun honetako protagonista nagusiak. Eta bukatzeko gutxien espero dugun lekutik bi panpin sortuko dira... Nor da panpina..?

Humor, magia y música son la base de este entretenido espectáculo, donde disfrutaremos de la presencia de los muñecos Mattin, Sissy y Lester.

## IRRIEN LAGUNAK
### "Euskararen taupadak"




Martxoaren 16an
*osteguna*
18:00etan

**BILBOROCK ARETOAN**
*Mesedeetako kaia, 1*

Martinbertso eta Tiritatxo herriz herri osasun azterketak egiten dabiltza. Oraingoan ordea, euskararen osasuna da aztertuko dutena.

Kultura eta osasuna ardatz izanik, euskara osasuntsu mantentzeko botika ikuslearen parte hartzearekin jaso eta adostuko dute. Euskaratik eta euskaraz jolasteko aukera izango dugu eta irria izango da ikuskizun honetan ahotik kendu ezingo dugun keinua!

Gran oportunidad para disfrutar jugando en euskera de la mano de Martinbertso y Tiritatxo.

## BAPATEAN ZIRKO
### "Pon eta Pa"




Martxoaren 20an
*astelehena*
18:00etan

**ZAMAKOLAN, Juan Delmas ikastetxean**
*Zamakola, 174*

Pon-en urtebetzea da eta Pa-k sorpresa ugari prestatu dizkio.

Susto, korrikaldi, opari eta bizkotxo artean gure bi lagunek malabare akrobazia eta xaboi ponpen mundura eramango gaituzte. Dena da posible, zirkua eta antzerkia nahasten dituen ikuskizun honetan!

Pa ha preparado un montón de sorpresas para el cumpleaños de Pon, incluso algún susto... Todo es posible en esta obra de carácter circense y teatral.

## ANE, MONNA, OSKOLA ETA KARRAMARROI TALDEA
### "Pepitaren liburu majikoa"




**BILBOROCK ARETOAN**
*Mesedeetako kaia, 1*

Gure laguna den Oskolak Ameriketako irla baten bizi den lehengusina dauka, Kuban hain zuzen ere. Pepita eta bere lagunak oso pozik eta zoriontsu bizi ziren irla horretan, "El Guije" gaiztoak maltzurkeriekin herritarrak aztoratu arte.

Behin zerbait larria gertatu eta Ane Monna, Oskola eta Karramarroiri Kubatik igorritako gutuna heldu zitzaien laguntza eske. Egoeraren berri izan bezain pronto hegazkina hartu eta laguntzera joan ziren. Beraien helburua lortuko ote dute? Etor zaitez zu zeu ere laguntzera!

**Martxoaren 23an**
*osteguna*
*18:00etan*

La prima de Oskola le escribió una carta urgente desde Cuba pidiéndole ayuda para librarse de las fechorías de El Güije y así poder recuperar la felicidad arrebatada..

## AKELAR TALDEA
### "Aztikeriak"




**BILBOROCK ARETOAN**
*Mesedeetako kaia, 1*

Zer gertatuko litzateke mago batek loak hartuta, bere ikuskizunera joatea ahaztuko balu? Oinarri hau hartuta Txoborrok eta Tor magoak erabat berritzailea den magia saioa sortu dute.

Antzerkia eta magia uztartuz unibertso magiko bat eraiki dute. Dena, logikatik guztiz aldendua. Baina... den-dena?

**Martxoaren 30ean**
*osteguna*
*18:00etan*

Los magos Txoborro y Tor han creado un espectáculo innovador y sorprendente, alejado de toda lógica. ¿Os lo vais a perder?

## ZIRIKA ZIRKUS
### "Txarlestrup"




**BILBOKO KARMEN ARETOAN**
*Indautxu plaza, z.g*

Txarlestrup oso banda berezia da, txarlestona jotzetik dantzatzera pasa daitezke, akrobazietatik, klakera...
Denetarik egiten dute bost artista hauek, baina... denak etorriko dira? Gure publiko maitagarriaren laguntza beharko ote dute?

Dena ikusteko dago, baina zuk ez duzu galtzeko asmorik ezta?

Erritmoak, musika zuzenean, txarlestona, zirkoa eta batez ere umore pila!

**Martxoaren 24ean**
*ostirala*
*18:00etan*

Txarlestrup es una banda muy especial que puede pasar de tocar el charlestón a bailar, a realizar acrobacias, claqué, circo... Todo esto aderezado con mucho humor.

## ODEI ARREGI
### "Ipuin lotsatiak"




**MIRIBILLAKO IRUARTETA IKASTETXEAN**
*Juan de Garay, 51 bis*

Hau ez da ipuin kontaketa arrunta; ipuinak eta antzerkia nahastuz, etxeko gauzekin osatutako unibertso txikia baizik.

Ipuinak leku guztietan daude. Batzuk besteak baino errazagoak dira aurkitzeko, adibidez, liburuetan bizi direnak. Ipuin lotsatiak, ordea, oso abilak dira ezkutaketan jolasten, eta hauek aurkitzeko modu bakarra, begiak ondo ireki, belarriak adi jarri eta gure inguruari arretaz begiratzea da. Odeik, armairuak arakatu, etxea hankaz gora jarri eta kutxa batean sartu ditu aurkitu dituen ipuin lotsati guztiak, zuei guztiei kontatzeko!

**Apirilaren 5ean**
*asteazkena*
*18:00etan*

El teatro y los cuentos se unen en este pequeño universo creado a partir de elementos cotidianos. Disfruta de una tarde literaria gracias a las historias de Odei Arregi.

## SEME-ALABEKIN ERREZETA DIBERTIGARRIAK SUKALDATZEKO TAILERRA - *EUSKARAZ*




Sukaldaritza bide bikaina da haurren ahozkotasuna, sormena, trebezia eta gaitasun komunikatiboak garatzeko. Sukaldari profesional baten laguntzarekin plater entretenigarriak egingo dituzte parte hartzaileek.

Las recetas son una herramienta útil en el proceso educativo de nuestros hijos e hijas. Gracias a la ayuda de un cocinero profesional elaboraremos varias recetas en clave lúdica y educativa.

| | |
|---|---|
| **Urtarrilaren 24an** *asteartea, 18:00etan* | **BEGOÑAKO UDALTEGIAN** *Circo Amateur Club Deportivo, 2* |
| **Urtarrilaren 25ean** *asteazkena, 18:00etan* | **ERREKALDEKO UDALTEGIAN** *Altube zeharkalea, 6* |
| **Urtarrilaren 26an** *osteguna, 18:00etan* | **CASTAÑOSKO UDALTEGIAN** *Castaños, 11* |
| **Urtarrilaren 27an** *ostirala, 18:00etan* | **ABANDOKO UDALTEGIAN** *Barrainkua, 5* |
| **Urtarrilaren 28an** *larunbata, 11:00etan* | **DEUSTUKO BIDARTE UDALTEGIAN** *Agirre Lehendakaria, 42* |
| **Apirilaren 4an** *asteartea, 18:00etan* | **SANTUTXUKO UDALTEGIAN** *Remigio Gandasegi Monseñorea, 6* |

**Haurren adina:** *4-8 urte*
***Edukiera mugatua /** Aforo limitado: *20 haur + 20 guraso*
**Izen emate epea:** *urtarrilaren 2tik 12ra.*

## MUSIKOTERAPIA TAILERRA - *EUSKARAZ*



Musikoterapia tresna pedagogiko, ludiko eta entretenigarria da. Musikoterapeuta profesional baten laguntzaz, guraso eta haurren artean musika eta euskararen bidez giza harremanak sustatuko ditugu.

Toda la familia podrá disfrutar de esta experiencia pedagógica, lúdica y entretenida de la mano de un musicoterapeuta profesional.

| | |
|---|---|
| **Otsailaren 6an** *astelehena, 18:00etan* | **BASURTUKO UDALTEGIAN** *Zankoeta, 1* |
| **Otsailaren 7an** *asteartea, 18:00etan* | **BEGOÑAKO UDALTEGIAN** *Circo Amateur Club Deportivo, 2* |
| **Otsailaren 8an** *asteazkena, 18:00etan* | **ERREKALDEKO UDALTEGIAN** *Altube zeharkalea, 6* |
| **Otsailaren 9an** *osteguna, 18:00etan* | **CASTAÑOSKO UDALTEGIAN** *Castaños, 11* |
| **Otsailaren 10ean** *ostirala, 18:00etan* | **ABANDOKO UDALTEGIAN** *Barrainkua, 5* |
| **Otsailaren 11n** *larunbata, 11:00etan* | **DEUSTUKO BIDARTE UDALTEGIAN** *Agirre Lehendakaria, 42* |

**Haurren adina:** *4-8 urte*
***Edukiera mugatua /** Aforo limitado: *15 haur + 15 guraso*
**Izen emate epea:** *urtarrilaren 2tik 12ra.*

## SENDABELAR TAILERRA - *EUSKARAZ*



Landare eta fruta ezberdinen usaina harrapatu, testurak ukitu eta naturak ematen digun koloreez jabetzeko aukera izango duzue.

Taller experimental para olfatear, tocar plantas y frutas mientras aprendemos sus poderes curativos de una manera lúdica en familia.

**Haurren adina:** *4-8 urte*
***Edukiera mugatua /** Aforo lim: *12 haur + 12 guraso*
**Izen emate epea:** *urtarrilaren 2tik 12ra.*

| | |
|---|---|
| **Otsailaren 17an** *ostirala, 18:00etan* | **ABANDOKO UDALTEGIAN** *Barrainkua, 5* |
| **Martxoaren 21ean** *asteartea, 18:00etan* | **BEGOÑAKO UDALTEGIAN** *Circo Amateur Club Deportivo, 2* |
| **Martxoaren 28an** *asteartea, 18:00etan* | **SANTUTXUKO UDALTEGIAN** *Remigio Gandasegi Monseñorea, 6* |
| **Apirilaren 3an** *astelehena, 18:00etan* | **EUSKARAREN ETXEAN** *Agoitz plaza, 1* |

## MOZORRO TAILERRA - EUSKARAZ



Haur eta gurasook elkarrekin mozorro bat sortzeko aukera izango duzue. Pausuz pausu mozorroaren arropa eta osagarriak diseinatuko dituzue, giro alai eta musikatuan.

Crearemos junto a nuestros hijos e hijas un disfraz para estos carnavales paso a paso.

**Otsailaren 20an** *astelehena, 18:00etan* — **BASURTUKO UDALTEGIAN** *Zankoeta, 1*

**Otsailaren 21ean** *asteartea, 18:00etan* — **BEGOÑAKO UDALTEGIAN** *Circo Amateur Club Deportivo, 2*

**Otsailaren 22an** *asteazkena, 18:00etan* — **ERREKALDEKO UDALTEGIAN** *Altube zeharkalea, 6*

**Otsailaren 25ean** *larunbata, 11:00etan* — **DEUSTUKO BIDARTE UDALTEGIAN** *Agirre Lehendakaria, 42*

**Haurren adina:** *4-8 urte*
***Edukiera mugatua /** Aforo limitado: *20 haur + 20 guraso*
**Izen emate epea:** *urtarrilaren 2tik 12ra.*

## BARRETERAPIA TAILERRA - EUSKARAZ



Barre egitea gozoa eta osasuntsua da. Tailer hauen bidez gure barreneko barrea askatuko dugu. Talde jolas eta dinamika anitzak erabiliz, norberaren buruaren erridikulua eta absurdoaren komikotasuna bilatuko dugu.

Reír además de ser agradable es muy saludable. Mediante estos talleres liberaremos nuestra risa interior en familia, mediante juegos grupales y varias dinámicas, buscando el lado cómico de la sensación de ridículo personal.

**Martxoaren 7an** *asteartea, 18:00etan* — **BEGOÑAKO UDALTEGIAN** *Circo Amateur Club Deportivo, 2*

**Martxoaren 8an** *asteazkena, 18:00etan* — **ERREKALDEKO UDALTEGIAN** *Altube zeharkalea, 6*

**Martxoaren 9an** *osteguna, 18:00etan* — **ZORROTZAKO UDALTEGIAN** *Rojo Hermogenes, 1*

**Martxoaren 11n** *larunbata, 11:00etan* — **DEUSTUKO BIDARTE UDALTEGIAN** *Agirre Lehendakaria, 42*

**Haurren adina:** *4-8 urte*
***Edukiera mugatua /** Aforo limitado: *12 haur + 12 guraso*
**Izen emate epea:** *urtarrilaren 2tik 12ra.*

## ERAIKUNTZA ETA SORMENA - EUSKARAZ



Eraikuntzaren bitartez sormen gaitasuna garatuko dugu familia giroan eta modu dibertigarrian. Umeek jostailu ikusgarriak sortuko dituzte kartoizko kutxak erabiliz senideen laguntzarekin.

Construiremos formas y objetos utilizando cajas de cartón, estimulando la creatividad en familia.

**Haurren adina:** *4-8 urte*
***Edukiera mugatua /** Aforo lim: *20 haur + 20 guraso*

**Martxoaren 13an** *astelehena, 18:00etan* — **ZAMAKOLAN, Juan Delmas ikastetxean** *Zamakola, 174*

**Martxoaren 14an** *asteartea, 18:00etan* — **BEGOÑAKO UDALTEGIAN** *Circo Amateur Club Deportivo, 2*

**Martxoaren 15ean** *asteazkena, 18:00etan* — **ERREKALDEKO UDALTEGIAN** *Altube zeharkalea, 6*

**Martxoaren 18an** *larunbata, 11:00etan* — **DEUSTUKO BIDARTE UDALTEGIAN** *Agirre Lehendakaria, 42*

Tailerretan parte hartzeko derrigorrezkoa da aurretik izena ematea ***www.ikusietaikasi.eus*** gunean aurkituko duzuen izen-emate fitxa betez.

**IZEN EMATE EPEA: URTARRILAREN 2TIK 12RA.**

Para poder participar en los talleres es obligatorio inscribirse previamente mediante el formulario que encontraréis en la página web ***www.ikusietaikasi.eus***

**PLAZO DE INSCRIPCIÓN: DEL 2 AL 12 DE ENERO.**

ZURE SEME-ALABEKIN EUSKARAZ DISFRUTATZEKO BALIABIDEAK SAREAN:

## *IKUSI ETA IKASI BLOGA*

*Aholkuak, eskulanak, bideoak, esteka interesgarriak, zozketak... hori guztia eta gehiago hemen:*

**WWW.IKUSIETAIKASI.EUS**

euskaltzaleen topagunea

Bilbao